

Hernanik kronika

2005eko abenduaren 16a, ostirala ::: 1.685 zka. ::: www.kronika.net



❖ HITZALDIA Rekaldek azken liburua aurkeztuko du gaur

Angel Rekalde idazle tolosarrak bere azken liburua aurkeztuko du gaur Nabarraldeko antolatuta: *La República del Bidasoa Un estado independiente, sin moscas, sin frailes y sin carabineros*. Aurkezpen hitzaldian, euskal estatu independente bat izango zena- ren inguruan ariko da. Gaur, 19:30etan, Biterin. ||

❖ ETXERAT ELKARTEA Kontzentrazioa gaur

Etxerat elkarteak deituta kontzentrazioa dago gaur, 20:00etan, Plaza Berrin, 'Estatus Politikoa orain, Euskal Presoak Euskal Herrira' lemar- kin. Sakabanaketaren aurka- ko deia eramango du Etxer- tek Plaza berrira. Horrez gain, abenduaren 30ean sesto bat zozketatuko du eta gaur erri- fak saltzen ariko dira, 19:00- etatik 20:30etara. ||

❖ OSIÑAGA AUZOA Igandean kuota jasoko dute

Igande goizean urteko kuota jasoko dute Osiñagako auzo elkarteko kideek, goizean zehar. 10 euro dira kuota eta ordaintzen dutenen artean gabonetako saski bat zozke- tatuko da. ||

❖ MUS TXAPELKETAK Zumitzan partidak ostiralero

Zumitza tabernan mus txape- lketak egingo dituzte osti- ralero 22:00etan, gaur ber- tan hasita. Inskripzioa 10 eurokoa da eta izen ematea astelehene- tik ostiralera egin liteke. Ostiralero izango dira sariak eta erregularitateak ere izango du saria. ||

Errapia arte tailerrak urteroko festa egingo du bihar Zikuzulon, Zikuñagako eskola zahar- rean

Goizetik hasita, haurrentzako tailerra, graffitiak, antzerkia, bazkaria, argazki eta bideo proiektzioak, musika emanaldia, txokolatada, poesia, DJa eta kontzertua izango dira.

ERRAPIA arte tailerreko ki- deek urteroko festa antolatu dute bihar egun guztirako. Dagoeneko hirugarren festa da eta aurreko urteetan beza- la, adin guztietako pertsonak gustora egoteko moduko egi- taraua prestatu dute. Festa Zikuñagako eskola zaharra zen horretan egingo dute, orain arte tailerra dena eta *Zikuzulo* izena jarri diotena.

Festa goiz eta arratsalde Zikuñagan

Goizeko 11:00etan hasiko da festa Zikuñagan graffiti tailerra eginez. Ekaitz Bergara ariko da graffitiak egiten eta edo- zeinek parte hartu dezake. Tailerra aprobetxatuko dute sprayen koloreekin eskola zahar- ren kanpoaldea apaintze- ko. Ordu berean haurrentza- ko tailerra antolatu dute eta muralak pintatzen ariko dira. Eguerdiko 12:00etan hau-



Haurrentzako tailerra eta antzerkia izango da goizean.

rentzako 30 minutuko antzerki saioa izango da. Eguerdian, txistorra, tortila patata, ardoa eta sagardoare- kin bazkaria jarri dute hur-

biltzen direnentzat.

Arratsalde partean Adar- ragako txokolatada proba- tzeko aukera izango da eta Jon Zabaletaren bideoak eta

Nagore Legarretaren argazki- ak proiektatuko dituzte. Arratsaldeko 17:00etan Roberto Patxeko saxojoleak eta Satxa Soriazu pianojoleak jazz emanaldia eskainiko dute.

Arratsaldeko 18:00etan *Aitzakiarik ez* antzerkia eskaini- ko dute eta bertan ariko dira zuzenean eskultura egiten eta marrazten, hurrenez hurren, Aitor Ruiz de Eginio eta Idoia Beratarbide. Oier Gillan eta je interpretatuko dituzte. Ant- ton bajuarekin ariko da esze- natik eszenarako tarteetan jotzen. Antzerkiak gaur egun kreatibidadeak duen lekuaz go-goeta egiten du.

Segidan Gorka Setienek berak idatzitako olerkiak ira- kurriko ditu.

Arratsaldeko 20:30etan, *Nazka* taldearen kontzertua izango da eta bukatzeko Riki ariko da musika jartzen. ||

Udalak 100 aparkamendu berri jarriko ditu Karabeleko apeadero eta harrobi inguru- etan

Apeadero ondoan egitekoak diren 44 aparkamenduen obrak hemendik gutxira hasiko dituzte. Inguru horretan beste 10 plaza jarriko dituzte aurrerago.

Udalak jakitera eman du 100 aparkamendu berri egingo dituztela. Karabeleko apeade- ro ondoan egingo dituztenak berehala hasiko dira egiten eta inguru horretan beste terreno batean egitekoak diren beste 10 aparkamenduak 3 urte pasa baino lehen egingo dituzte. Horrez gain Santa Barbaran, harrobirako igoeran aparka- tzeko 45 plaza egingo dituzte. Udaletxetik jakinarazi dute aparkamendu hauek egingo

dituztela Kaxkotik gertu apar- kamendu gehiago jartzeko, herriko merkataritza indartze- ko urratsak emanez.

Bizilagunen beharra asetu

Karabeleko aparkamenduak egingo dituzte Renferekin lor- tutako akordio baten bidez. Andoni Amonarraiz zinego- tziak adierazi du akordioa Udal Gobernu taldeak gestio- natu duela, PSOeren kolabora- zioarekin. Zinegotziak azpima-

rratu du gestio honek Kara- beleko bizilagunek duten apar- kamendu premia asetuko due- la eta horrez gain, trenetik urru- ti bizi diren herritarrentzat ere mesedegarria izango dela, baita Kaxkora joan nahi dutenentzat ere. Amonarraizek gogorarazi du aparkamendu hauek egitea Belkara auzo elkartearen aspaldiko eskaria dela.

Renfek aparkamenduak egiteko eremu hau 40 urtetara- ko utzi dio Udalari, urtean 400

euro kobratuta. Renferi dago- kio eremu horretan dauden baratzak desalojatzea.

Santa Barbaran beste 45 plaza Bestetik, Santa Barbaran har- robiko igoeran aparkatzeko plaza gehiago jarriko dituzte. Aparkamendu hau duela hila- bete batzuk jarri zen martxan eta 45 plaza gehituko dizkiote. Jakinarazi dute oraindik her- naniar gutxik dutela aparka- mendu honen berri. ||

Eguzki perfumeria

Eguzki zure denda

- Perfumeria
- Opariak
- Edertze gela
- Solariuma
- Ileapaindegia

Kale Nagusia 45, Tel.: 943 551333

HATOR
Asesoría
Aholkularitza

HATOR
Aseguruak

Fiskala
Laborala
Kontablea
Administratiboa

Kardaberaz 60
Tel.: 943 55 43 12
20120 Hernani

Benta Berri

EGUNEROKO MENUA, KARTA
ETA OSPAKIZUNAK

Benta Berri
ARANO - NAFARROA
☎ (248) 51 40 18
LARUNBATETAN, ETA ASTELEHEN-ARRATSALDEAN ITXITA

Jatetxea

☎ TELEFONDAK 1 Taxiak: 943 550093 1 Udaltzaingoa: 943 333288 1 DYA: 943 464622
 1 Autobusak: 943 556662 1 Anbulatorioa: 943 006666 1 Jokalari anonimoak: 943 331103
 1 Alkoholiko anonimoak: 943 331103 1 FARMAZIAK 1 Egunez: Etxebeste Elkano 2 - 943 552087 1
 Gauez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA **GAUR** Gaurkoan eguraldiak hobera egingo du. Laino gutxiago espero dira baina egunaren bukaeran euri lanbroa egin dezake. Temperaturak gradu pare bat gora egingo du eta 12°C inguruan ibiliko da maximoa.

BIHAR Larunbatean berriro ere euria izango da protagonista. Egunduz guztian lainoak izango dira zeruan. Temperaturak ez du aldaketarik izango.

(euskalmet)

Gaur hasiko da Bertso Lata gazteentzako saioarekin

Ikasleentzako saioa izango da, 14:30etan, Biterin. Bertso jaialdia abenduaren 23an izango da, gaur zortzi.

GAUR hasiko da Bertso Lata, gazteentzako prestatutako saioarekin, arratsaldeko 14:30etan, Biterin. Hernaniko ikastetxe guztietako ikasleak izango dira bertan eta izango dute gozatzeko eta parte hartzeko aukera. Bertso eskolako ikasleek egingo dute gaurko saioa, baina, publikoak ere parte hartu beharko du gaiak eta ariketak jartzen. Parte hartuko duten bertsolarien hitzetan publikoak osatu beharko du gaurko saioa, kantatu berek egingo badute ere. Ikasleentzako saioa bada ere, nahi duen guztiarentzat irekia izango da.

Ostiralean, jaialdia

Hurrengo ostiralean, abenduak 23, izango da jaialdia kiroldegiko pelotalekuan, gaueko 22:00etan. Punta puntako sei bertsolari ariko dira kantuan: Maialen Lujanbio,

Andoni Egaña, Iñaki Zelaia, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Horrez gain, kalean bertsoak entzuteko aukera ere izango da

Maialen Lujanbio, Iñaki Zelaia, Andoni Egaña, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Unai Iturriaga ariko dira, abenduaren 23an Hernanin

Abenduaren 30ean, bertso Afaria izango da Zumardin Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazurekin

Santo Tomas egunean eta bertso afaria izango da Aitor Mendiluze eta Jexux Mari Irazu bertsolariekin, abenduaren 30ean, Zumardi jate-txean. Bertso Latari errema-

tea Urte Zaharretako errondak emango dio, urteko azken egunean, Ohitura Zaharrek Abesbatzaren eskutik. ||

Txapelketako finala

Bertsoarekin hernaniarrek duten zita bakarra ez da Bertso Lata. Datorren igandean Txapelketa nagusiko finala jokatu da Barakaldoko BEC aretoan, goiz eta arratsalde. Hernaniko bertso eskolako bi kide ariko dira: Maialen Lujanbio, aurreko txapelketan txapeldun orde gelditua eta Aitor Mendiluze andoaindarra, aurreko txapelketan 3garren gelditua. Hernanitik autobusez joateko txartela hartu dutenek 08:10etan dute irteera ordua (puntual irteerako dira autobusak), Atsegindegian. Dagoeneko sarrera guztiak agortuak

❖ AEK EUSKALTEGIA

Pintxo lehiaketa gaur

Pintxo lehiaketa izango da gaur AEK euskaltegian, arratsaldeko 20:00etan. Bost taldek hartu dute parte lehiaketan, nork esku eta imajinazio hobe izango. ||

❖ ELKARTEAK

Antziolako elkarte bilerak

Antziolan soziedade berri bat sortzeko lanean ari dira eta elkarterako estatutuak onartzeko bilera dute gaur, goizeko 10:00etatik aurrera, elkarte berrian bertan. ||

❖ KONTZERTUAK

Txistu kontzertua igandean

Datorren igandean txistu kontzertua dago Milagrosan, arratsaldeko 13:00etatik aurrera. Patxi Apezteak zuzenduta, 8 kanta joko dituzte txistulariek, Eguberri bueltan urtero egiten duten kontzertuaren barruan. ||

Ansa ahizpak bihar

Ansa ahizpek kontzertua emango dute bihar, larunbata, arratsaldeko 19:00etan Sandiusterrin. 16 kanta eskainiko dituzte eta jendeak kantatzeko aukera izango du. ||

ESKOLA KIROLALA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

SASKIBALOI

Alebin mutilak	Elizabxo B-Elizabxo C	Kiroldegia	Bihar 09:15
Alebin neskek	Eli.Uru.-Ibai A	Kiroldegia	Bihar 10:10
Alebin neskek	Urumea-Zurriola D	Kiroldegia	Bihar 10:10
Alebin mutilak	Urumea C-Urumea B	Kiroldegia	Bihar 11:05
Alebin mutilak	Elizabxo A-Inmaculada	Kiroldegia	Bihar 11:05

BOLEIBOLA

Kadet neskek	Inmaculada-Sto.Tomas	Kiroldegian	Bihar 11:45
Kadet neskek	Langile-Presentacion	Kiroldegian	Bihar 11:45
Aleb neskek	Langile B-Elizabxo	Kiroldegian	Bihar 11:45

PALETA

Alebinak	Urumea E-Urumea C	Kiroldegia	Bihar 15:00
Alebinak	Elizabxo-Langile D	Kiroldegia	Bihar 15:30
Alebinak	Langile A-Langile C	Kiroldegia	Bihar 16:00
Alebinak	Urumea D-Urumea B	Kiroldegia	Bihar 16:30
Alebinak	Urumea F-Urumea A	Kiroldegia	Bihar 17:00

ESKU PELOTA

Alebinak	Langile B-Langile E	Kiroldegia	Gaur 15:15
Alebinak	Elizabxo A-Langile D	Kiroldegia	Gaur 15:45
Alebinak	Urumea C-Langile A	Kiroldegia	Gaur 16:15
Alebinak	Langile C-Elizabxo B	Kiroldegia	Gaur 16:45
Alebinak	Urumea B-Urumea A	Kiroldegia	Bihar 17:15

FUTBOLA

Infantil neskek	Langile-Antigua Luberrri	Zubipe	Bihar 11:00
Infantil neskek	Urumea-Euskalduna	Zubipe	Bihar 11:00
Benjamin 3	Urumea B-Langile C	Zubipe	Bihar 09:00
Benjamin 3	Elizabxo A-Langile B	Zubipe	Bihar 10:00
Benjamin 3	Langile A-Elizabxo B	Zubipe	Bihar 11:00
Benjamin 3	Urumea A-Langile D	Zubipe	Bihar 12:00

ERRUGBIA

Benjamin 4	Talde guztiak	Landare	Bihar 10:15
------------	---------------	---------	-------------



Atal honen babesle:

HERNANIKO UDAL KIROL PATRONATUA



❖ CHILLIDA LEKU

Kontzertua gaur

Chillida Lekun musika emanaldia izango da, Aita Donostiak armonizatutako abesti herrikoiena. Almudena Ortega sopranoa eta Josu Okiñena pianojoleak interpretatuko dituzte abestiak. Bi musikari hauek Aita Donostiak armonizatutako abesti herrikoekin bi disko grabatu dituzte. Gaur arratsaldeko 20:00etan, Museoko auditorioan. ||

❖ PELOTA-Gipuzkoako Txapelketa

Finala gaur Zestean

Gipuzkoako Txapelketako finala jokatu dute, paletan, bi bikote hernaniarrek elkarren kontra: Garazi Jauregi eta Nagore Zabalak, Ane Lujanbio eta Leire Lucasen kontra. Gaur arratsaldeko 20:00etan Zestean. ||

❖ TRAFIKO ALDAKETAK

Zinkonearako bidea itxita

Goizeko 08:30etatik aurrera (bi orduz behintzat bai) itxita egongo da gaur Zikuñaga aldetik eta Latsunbetik Zinkonearako sarrera. Agustina ingurua asfaltatzeko itxiko dute. Udaltzaingoa gidarien pazientzia eta esfortzua eskertu nahi du, Kronikari esan diotenez. ||

Martindegin rotondak itxita

Gaur gauerdiko 24:00etatik 01:00etara itxita egongo da Martindegin bi rotunda arteko bidea. Astigarraga aldera dijoan trafikoa desbideratu egingo dute, Karabelgo enlazea eta Hernaniko barianteko azken zatitik barrena. Astigarragatik datorrena, Ergobian barrena desbideratuko dute. ||

❖ ANTZERKIA

Haurrentzako antzerkia bihar, Biterin

Haurrentzako *Marratxo* antzezlan izango da bihar Biterin, goizeko 11:00etatik aurrera, Peter Roberts taldearen eskutik. ||

❖ MANIFESTAZIOA

Mikel Zabalzaren heriotza gogoratzeko manifestazioa bihar Donostian

Mikel Zabalzaren heriotza gogoratzeko egingo den manifestaziora joateko deia egin du Hernaniko Amnistiaren aldeko mugimenduak. Enderlatzan hilda agertu zela 20 urte betetzen dira aurtan. Arratsaldeko 17:00etan aterako da Donostiako Boulebardetik. ||

❖ ZINEA BITERIN

'Princesas' pelikula gaur

Princesas pelikula izango da gaur Biterin, arratsaldeko 22:30etan. ||

❖ USURBIL

Takolo, Pirritx eta Porrotx larunbatean

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dira, larunbatean, Usurbilgo kiroldegian, 16:30etan eta 18:30etan. Sarrerak salgai daude Lete liburu dendan. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Kotxea salgai. Peugeot 206. 115.000 km ditu eta 1999koa da. **Prezioa 4000 €.** Interesatuek deitu: 618 816 960

25 urteko **Administrataria lan bila.** Deitu: 660 580 862

Urrezko katea galdu nuen, larunbatean, Hernaniko kaxkoan. Familiako errekerdoa da. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 943 552767

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Etxe bat salgai Gudarien plazan. 50 m2 ditu. Interesatuek deitu: 679 10 75 06 (Arratsaldeko 13:30etatik 15:30etara)